



AÑARBEKO UREN MANKOMUNITATEAREN ETA BERE KUDEAKETARAKO ERAKUNDE PUBLIKOA DEN AGUAS DEL AÑARBE-AÑARBEKO URAK, S.A.REN ARTEKO HARREMANAK ARAUTZEN DITUEN HITZARMENA

Donostian, 2006ko maiatzaren 15ean

BILDURIK

Alde batetik, Añarbe Ibaiko Urtegiko Uren Udal Mankomunitatea, ekitaldi honetan Odón Elorza González jaunak, Mankomunitateko Presidente gisa ordezkatzen duena, 2006ko maiatzaren 11n egin zen bilkuran Batzordeak berak hartutako erabakiaren ondorioz, berariaz ekitaldi honetarako baimendua.

Eta bestetik, Aguas del Añarbe-Añarbe UraK, S.A., ekitaldi honetan Enrique Noain Cendoya jaunak ordezkatuko duena, aipaturiko erakunde honen Administrazio-Kontseiluak 2006ko maiatzaren 11n egin zuen bilkuran hartu zuen erabakiaren ondorioz, berariaz ekitaldi honetarako baimendua.

ADIERAZTEN DUTE

- I. Añarbe Ibaiko Urtegiko Uren Udal Mankomunitatearen (aurrerantzean Mankomunitatea) Estatutuen 25. artikulua haxe dioela:

“25. artikulua”

Mankomunitateak bere helburuak betetzeko, tokiko erakundeentzat aurreikusten diren kudeaketa zuzeneko eta zeharkako bide guztiak erabili ahal izateaz gain, Udal Sozietate Anonimoko izaera izan dezakeen kudeaketa-organo bat izango duela.”

- II. Agindu transkribatua betez, 1995eko irailaren 15eko datarekin, Aguas del Añarbe-Añarbe UraK, S.A. Udal Sozietate Anonimoa sortu dela, eta sortu ere oso-osorik Mankomunitatearen kapitalarekin.

III. Helburu Soziala, Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. erakundearen Estatutuen 2. artikulua xedatzen duenez honakoa dela:

“ 2. artikulua ”

Erakundearen helburua da:

- a) Añarbe Ibaiko Urtegiko Uren Udala Mankomunitatearen (aurrerantzean Mankomunitatea) alde egiten diren ur-emakiden ustiapena edo Mankomunitateko kide diren Udalek lagatzen dituztenena.*
- b) Añarbe ibaiko urtegiaren kontserbazioa eta ustiapena, baita ur-hodiak, araztegiak, ponpaketak, ur-andelak eta adarrak ustiatzea eta mantentze-lanak egitea, erostea edo egitea, aipaturiko urtegiko urak Mankomunitateko kide den Udalerrri bakoitzeko hartuneetara urak eramateko beharrezkoak direnak.*
- c) Añarbe ibaiko Urtegiko uren horniketa-zerbitzua eskaintzea udal sareekin lotura egiten duten guneetara, hau da, ur-sare primarioetara.*
- d) Urak Añarbeko ibaiko Urtegian isurtzen ez dituzten gainerako iturburuetatik datozen uren horniketa-zerbitzua eskaintzea udal sareetara lotura egiten duten guneetara, hau da, sare primarioetara.*
- e) Hondakin- eta euri-uren saneamendu-zerbitzua eskaintzea sare primarioetan.*
- f) Uraren ziklo integralarekin zerikusia duten zerbitzuak eskaintzeagatik sortzen diren diru-sarreraren likidazioa, kudeaketa, bilketa eta ikuskaritza, baita abonatuaren kudeaketaren inguruko gainerako alderdi guztiak ere.*
- g) Ur-banaketako eta saneamenduko udal sareak egitea, berritzea, mantentze-lanak egitea eta ustiatzea.*
- h) Mankomunitateko partaide diren Udala guztiei aholkularitza teknikoa ematea uraren ziklo integralaren kudeaketarekin zerikusia duten gai guztiei dagokien hartan.*
- i) Uraren ziklo integralaren kudeaketaren barruan sartzen diren gainerako zerbitzu guztiak eskaintzeko eskuduntza.*

Sozietateak helburu sozial hau garatu ahal izango du osorik edo partzialki era ez-zuzenean, akzioen titulartasunaren bitartez edota helburu sozial bertsua edo bera duten sozietateetan partaidetzak izanik.”

Bigarrenena.- Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. Sozietateak Estatutu Sozialetako 2. artikuluko a), b), c) eta e) hizkietan aurreikusten diren egitekoak behar bezala kudea ditzan, Mankomunitateak obligazioa dauka Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. Sozietateari aktibo eta pasibo guztiak besterentzeko, izaera publikoko ondasunak izan ezik, hauek besterendu ezinak baitira. Aipaturiko aktibo eta pasiboen ekarpena egiteko Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. erabakitzen duen kapital zabalkuntzaren harpidetza egingo du Mankomunitateak.

Orobat, Mankomunitateak bere gain hartzen du Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. Sozietateari bere titulartasuneko izaera publikoa duten ondareak besterentzeko, zerbitzuak eskaintzeari atxikiak. Esleipen honek berekin emango dio Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. Sozietateari izaera publikoko ondasunen erabilpen eta gozamen eskusiboko eskubidea.

Aurreko paragrafoan deskribatu diren izaera publikoko ondasunen esleipena ez da arazo izango Mankomunitateak aipaturiko izaera publikoko ondasunak eraikitzaera, eroztera edo hobetzera bideratu diren pasiboen printzipala oso-osorik Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. Sozietateari besterentzeko, Mankomunitatearen gainerako pasiboekin batera, Klausula honetako 1. paragrafoan xedatu denaren arabera.

Hirugarrena.- Mankomunitateak etorkizunean bere gain hartuko balitu Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. Sozietatearen Estatutuetako 2. artikuluko d), f), g), h) eta i) hizkietan aurreikusten diren egitekoak, Mankomunitateak Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. sozietateari egiteko horiek bere gain hartzearen ondorioz besterentzen dizkieten ondasunak, edo bere kasuan kide diren Udalek egindako ondare-ondasunak esleitu beharko lizkioke. Ondasun horien ekarpena egiteko Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. erabakitzen duen kapital zabalkuntzaren harpidetza egingo du Mankomunitateak, helburu berri baten edo batzuen kudeaketa bere gain hartzen duen bakoitzean.

Aldi berean, Mankomunitateak obligazioa izango du Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. Sozietateari helburu honegatik, hala balegokio, kide diren Udalek esleitu dizkieten ondare-ondasunak eta arrazoi honegatik esleitzen dizkieten izaera publikoko ondasunak esleitzeko. Esleipen honek berekin emango dio Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. sozietateari izaera publikoko ondasunen erabilpen eta gozamen eskusiboko eskubidea.

Laugarrena.- Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. Sozietateak Bigarren eta Hirugarren Klausuletan xedatzen denaren arabera esleitzen zaizkion ondasunak direla-eta, Mankomunitatearen aurrean obligazioa izango du ondasun horiek zaintzeko, zerbitzuak

egoki eskaini ahal izateko beharrezkoak diren ohiko zein aparteko konponketak eginez, baita horien inguruko zerga eta kontribuzio guztiak ordaintzeko ere.

Esleitzen diren ondasunek Mankomunitatearen jardueraren helburutako diren zerbitzu publikoari atxikita jarraituko dute. Dena den, AGASAk aipaturiko ondasun horiek erabili ahal izango ditu eta hirugarren batzuei lagapen partziala eta aldi baterakoa egin ahal izango die, beti ere aipatu lagapen hauek ondasun horien egitekoa duten zerbitzu publiko zuzena eta egokia emateko beharrezkoak ez diren guneak edo instalazioak baldin badira, eta horien ustiapena marjinala denean, hau da, egin behar diren ekintzek aipatu diren zerbitzu publikoak oztopatzen edo galarazten ez dituztenean. Kasu hauetan AGASari dagokio hirugarrenek ordaindu behar dituzten diru-ordainketak jasotzea.”

Esleitzen zaizkion ondasunen inguruan, behartua dago ez besterentzera ezta zergak jartzera ere, non eta aipaturiko besterentzeak edo zergak ez dion erasaten zerbitzuaren prestazio egokiari.

Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. Sozietateak esleitzen zaizkion ondasunetan egiten dituen hobekuntzetan berorien onerako izango dira.

Laugarrena bis.- Etorkizunean Sozietateak eraikitzen edo eskuratzen dituen ondasunak, esleitu zaizkion ondasunen hobekuntza-ondasunak ez direnean, bere jabetzakoak izango dira.

Nolanahi ere, Mankomunitatearen eta Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. Sozietatearen arteko akordio bat tarteko, ondasun jakin batzuk Mankomunitatearen jabetzakoak izan ahalko dira.

Bosgarrena.- Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A Sozietateak Mankomunitateari urtean kanon bat ordaindu beharko dio, Mankomunitateak hirugarrenei ohiko funtzionamenduagatik ordaindu behar dien diru-kopuruaren zenbateko berdina.

Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. sozietatearen Estatutueta 2. artikuluko d), f), g), h) eta i) hizkietan aurreikusten helburuak bere gain hartzen dituzenean, Mankomunitateak kide diren Udalekin edo hirugarren batzuekin diru-obligazioak hartzen baditu, aurreko paragrafoan aipatu den kanona igo egingo da, aipaturiko obligazio hauek iraungitzen diren arte, Mankomunitateak urtero ordaindu beharko duen diru-kopuruaren proportzio berean.

Seigarrena.- Mankomunitateko pertsonal guztia, nola funtzionarioak (dagoeneko sozietateko pertsonal laboral izateko adostasuna eman duten pertsonak), hala laborala,



Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. sozietatera iragango da Sozietateak Estatutuetako 4. artikuluko a), b), c) eta e) hizkietan aurreikusten diren helburuen kudeaketari ekiten dion une berean.

Orobat, Mankomunitateak bere gain hartuko balitu Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. Sozietatearen Estatutuetako 2. artikuluko d), f), g), h) eta i) hizkietan aurreikusten diren helburuen kudeaketa, sozietateak bere gain hartu beharko luke:

- Kide diren Udaletako pertsonal laborala, besterendu diren zerbitzuetara atxikia egonik, Mankomunitateko Batzordeak erabakitzen duena.
- Kide diren Udaletako pertsonal funtzionarioa, besterendu diren zerbitzuetara atxikia egonik, Mankomunitateko Batzordeak erabakitzen duena, beti ere, pertsonal horrek, gainera, lan-legedi arruntak arautzen duen lan-kontratua bere borondatez sinatzen baldin badu.

Zazpigarrena.- Emateko arduraren hartzen diren zerbitzuen prestazioa bere kasuan onesten den Zerbitzu-Arautegira, Mankomunitatearen Estatutuetara eta Sozietatearen beraren Estatutuetara lotuko da, aipaturiko prestazioa kide den Udal bakoitzera baldintza beretan emango dela bermatuz.

Horretarako, Mankomunitateak eta Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. Sozietateak elkarlanean arituko dira, zerbitzuak ahalik eta ondoen eskaintzeko, informazioa trukatzuz eta elkarri behar den laguntza emanez.

Mankomunitatearen eta Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. Sozietatearen artean sor litezkeen bane izaerako eskuduntza-arazoak beti Mankomunitateko presidentek ebatziko ditu.

Zortzigarrena.- Zerbitzuen prestazioagatiko tarifak beti, ekitaldi bakoitzerako Mankomunitateko Batzordeak erabakitzen duenera mugatuko dira, eta tarifa horiek ez dira aldatuko udalerrri batean edo beste batean eskaintzeagatik; beraz, denetan tarifa bera izango da.

Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. Sozietateak bere gain hartzen dituen zerbitzuen prestazioagatiko gastuak (nola ohiko arruntak, hala inbertsioak) Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A., Sozietateak ordainduko dituenek, eskaintzen dituen zerbitzuen truke izaten dituen diru-sarrerak ere sozietatearenak izango dira.

Bederatzigarrena.- Mankomunitateak Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. sozietateari emango dizkio obregatikoko, zerbitzuengatikoko eta homidurengatikoko kontratu administratiboak, kontratu administratibo bereziak eta indarrean dauden kontratu pribatuak, dauden fasean daudela, aurre-kontratuzkoa edo kontratuzkoa, prestaketakoa edo exekuziokoa, une bakoitzean bere gain hartzen dituen zerbitzuen eskaintzarekin zerikusi zuzena dutenak zein hasieran Mankomunitateak berak hitzartuak izan arren zein kide diren Udalek eman dizkiotenak izan.

Aurreko paragrafoan ebatzitakoa ebatzia, ez zaizkio esleituko Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. Sozietateari kide diren udalen eta finantza-entitateen artean sinaturiko mailegu-kontratuak, hala dagokionean, geroago Mankomunitateari eman zaizkionak.

Bere aldetik, Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. sozietateak bere gain hartu beharko ditu ematen zaizkion kontratuen ondorioak, lege-posizioan Mankomunitatetik edo aipatu kontratu hauetan kide diren Udaletatik subrogatuz, eta berak negoziatu beharko ditu besterentzen zaion kontratatzailearekin kontratu-lagapenaren onespena lortzeko.

Hori horrela izanik ere, besterentzen den kontratatzailearen onespenean jaso ezean, lagapenak ondorioak bakar bakarrik izango ditu Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. Sozietatearen eta lagapena egin duen Mankomunitatearen artean.

Hamargarrena.- Hitzarmen hau iraungitzeko arrazoiak dira:

- a) Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. Sozietatea desagitea bere Estatutu Sozialen VI. Tituluan xedatutakoaren arabera.
- b) Mankomunitateko Batzordearen akordioa, bi aldeak hitzarmen erregulatzailer berria egin beharko dutelarik ondasunak, pertsonala eta desagite-unean dauden kontratuak Mankomunitatera itzuliko direlarik.

Hamaikagarrena.- Hitzarmen honetako Klausulak edozein kasutan ere Mankomunitatearen Estatutuetan xedatutakoaren arabera interpretatuko dira, kasurik guztietan ere aplikazio zuzeneko arauak izango direlarik.

MANCOMUNIDAD
DE AGUAS DEL AÑARBE

AÑARBEKO UREN
MANKOMUNITATEA

AGUAS DEL AÑARBE

AÑARBEKO URAK, S.A.



Eta adostasun gisa sinatzen dute, bina aletan, idazpuruan berariaz adierazi diren tokian eta datan.

Odón Elorza González
Añarbeko Uren Mankomunitateko
Presidentea

Enrique Noain Cendoya
Aguas del Añarbe-Añarbeko Ura,
S.A.ko Presidentea

